



ARGIA

ARGIA KOMUNITATEA OSATZEN

Abian da *Lasarte-Oria* ikusteko beste betaurrekoak ekimena



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Zenbat lasartearrek ote daki ARGIAk bere herrian duela egoitza? Eta zenbat irakurlek daki hori? Batzuek bai, seguru, baina gustura ezagutuko nituzke datuak. ARGIAko lantaldeak pentsatuko du hori jakina dela, baina nire zalantzak badituz. Dena dela ere, proiektuaren hurrengo pausoa, ezagutzera emateko bidean doa.

ARGIAren komunitatea hazten jarraitzeko gogoia dago, eta herriz herriko lan-keta martxan da. Lehen geltokia Lasarte-Oria. Lehena diogu, ekimena beste herri batzuetara eramatea ere bada asmoa eta. Egunerokoan interneten eta astero papelean jorratzen diren gaiak dira ARGIAren baloreak, eta betaurreko horietatik begiratzeko zaio munduari. Baina mundua kalean dago, eta hor eragin nahian ekin zaio bide honi; jendartean, behean, xehean balore horiekin eragiteko asmoz. Argia Eguna berreskuratu zen duela bi urte eta orain herriz herri bertako eragileekin eta ARGIAren komunitatearekin egin nahi da lan, herriko eragileekin elkarlanean ekimenak antolatuz, herritarrekin harreman zuzena mantenduz...

Lasarte-Oriak esanahi berezia dauka ARGIArentzat. 1990etik du egoitza

Orian, eta bertan argitaratu eta inprimatzen da aldizkaria. Gaur Ametzagaiañ taldeak lau enpresa eta berrogeita hamar langile ditu bertan.

Bada komunitatea, proiektuaren helburuak eta abar oso ondo... baina Lasarte-Orian zer egiteko asmoa dago?


Astebeteko egitaraua

Trantsizioak erakusketarekin emango zaio hasiera egitarauari maiatzaren 9an, eta hilaren 14ra arte egongo da ikusgai Mercero Aretoan, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Bisita gidatu baten bidez ARGIA ezagutzeko aukera izango da maiatzaren 10ean egoitzan bertan (Zirkuitu ibilbidea, 15. pabilioia), 19:00etan; eta irekia izango da gerturatu nahi duen orontzat.

Eta osatzeko, *Lasarte-Orian euskararen bilakaera*. *Atzera begira, aurrera begiratzeko* mahai-ingurua egingo da maiatzaren 12an, Villa Mirentxun, 19:00etan. Hizlariak Mailu Arruti (Ttakun elkartean eta AEK-n aritua), Pello Sasiain (Euskara zinegotzi ohia) eta Marga Iturriza (Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko irakaslea) izango dira. ■

H28 aldizkari saretirikoak Mozal Legea landu du azken zenbakian



Gipuzkoako Aldundiak erdira jaitsiko du euskarazko hedabideetako publizitatea

Gipuzkoako Foru Aldundiak 700.000 euro bideratuko ditu hedabideetako publizitate instituzionalera. Diru kopuru horren herena zuzenduko dute euskarazko hedabideetara: 235.000 euro. 2015eko aurrekontuarekin alderatuta, erdira jaitsiko du euskarazko hedabideetako publizitatea -568.702 eurotik 235.000 eurora-, *El Mundo* egunkariak argitaratu duenez. Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusiak adierazi du neurri horren arrazoiak direla "herrialdeko hedabideen errealtate anitzari erantzutea" eta "ahalik eta biztanle gehien informatzeko erantzukizuna betetzea".

Publizitate instituzionalaren %15 euskaraz egiteko eskaria

EITBko medioetan agertzen diren iragarkiak aintzat hartu gabe, euskarazko hedabideetan agertzen den publizitate instituzionala %3koa dela adierazi du Jon Azkue PSE-EEko legebiltzarkideak. "Urritatz" jo du portzentaje hori, eta azaldu du legearen arabera euskara lehenetsi behar dela publizitate instituzionalan. Legeak ezarritakoa "bete" behar dela adierazi du, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu dio publizitate instituzionalaren %15 euskaraz egin dezala. Hain zuzen, 2010ean Gipuzkoako Batzar Nagusiek sinatutako akordioa ekarri du gogora. Akordio horren arabera, publizitate instituzionalera bideratutako zenbatekoa %15ekoa izan beharko luke.